



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

2026ko EKAINAREN 24AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko ekainaren 24an arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, M^a M^a Ansorena, Javier Auza, Alaia Etayo eta Iker Isiegas

BERTARATU EZ DIRENAK:

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Maiatzeko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

2026/ 77 alkate ebazpena Igoako 9. poligonoko 286 lursailean 30 ahuntz edukitzea jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, kaltegabe aitortuz.

2026/78 alkate ebazpena onartuz Ttikienako haur eskolarako 2026-2027ko ikasturterako behin betiko onartutakoen zerrenda.

2026/79 alkate ebazpena Mikaela Elizalde Elizalde eskuordetzea 2026/5 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan.



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AA7Y 4YWX W2R2 L2Z3

2026-06-24ko akta - SEFYCU 378945

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

2026/80 alkate ebazpena onartuz Basaburuako Udalaren atxikipena Arguedasko Udalak onartutako adierazpen instituzionala.

2026/81 alkate ebazpena Berueteiko Kornieta mendian estazio termo plubiometrikoa jartzeko obragatik EIOZ ordaintzeko salbuespen eskaera ez onartzea.

2026/82 alkate ebazpena Begoña Arano Galarzak aurkeztutako eskaera onartu eta 2026ko ekainaren 26tik 2026ko abenduaren 26ra arteko eszedentzia onartzea.

2026/83 alkate ebazpena onartuz Ttikiena Haur eskolako hezitzaileen zerrenda behin betikoz.

2026/84 alkate ebazpena onartuz eskumen guztiak Julen Beunza Arano alkateordearen esku uztea 2026ko ekainaren 8tik 17ra biak barne

2026/85 alkate ebazpena onartuz Basaburuko Ttikiena Haur eskolarako 2026-2027 ikasturterako egutegia.

2026/86 alkate ebazpena baimena emanaz MTB Basaburua Kirol Klubari, Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko ekainaren 13an goizez, klubaren topaketa bat burutzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

3.- Eraikinak zaharberritzeko diru laguntzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespena

Alkateak azaltzen du Ogasun eta Hirigintza batzordeak ordenantzak aztertu ondoren erabaki duela honen aldaketa proposatzea batzarra. Aldaketa honen funtsa da sartu ahal direla ere dirulaguntzetan alokairurako diren etxebizitzak eraberritzen badituzte 65 urtetik gorakoak beti ere eraikinak 10 urteko antzinatasuna izanik...

Gaur falta den Mikaela Elizalde da gai honetaz arduratu den zinegotzia hortaz, hasierako onespena bera etortzen den batzarrean egingo da, harek azaltzeko aldagetaren nondik norakoak.

4.- Mozioak.

Foruen Abolizioaren 150. Urteurrenarekin lotutako mozioa helarazi dute, alkateak bildudakoei irakurtzen dien ondorengoak:

“2026. urteak garrantzi historiko eta politiko berezia du Euskal Herriarentzat. Izan ere, beste zenbait mugarriren artean –hala nola, Eusko Jaurlaritza eratu zela 90 urte betetzen dira– aurten bi efemeride nagusi ditugu: batetik, 1876ko uztailaren 21eko Foruen abolizioaren 150. urteurrena; eta, bestetik, 1976an Bergaran bildu zen Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrena.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

1876ko uztailaren 21eko legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-erregimenaren abolizioa ekarri zuen, Bigarren Karlistadaren amaieraren testuinguruan. Nafarroa Garaia kasuan, foru-araubidearen eraldaketa eta burujabetza instituzionalaren murrizketa sakona lehenago gertatu zen, 1841eko Lege Hitzartuaren bidez, Lehen Karlistadaren ondoren. Lehenago, 1789-1790 urteen artean, Frantziako iraultzaren eskutik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa gertatu zen. Hiru prozesu horiek, bakoitza bere une historikoan eta bere berezitasunekin, Euskal Herriko lurraldeek mendeetan garatutako instituzio, eskubide historiko eta burujabetza politikoaren galera eta murrizketa ekarri zuten. Erabaki haiek herri borondatearen gainetik ezarri ziren, eta ondorio sakonak izan zituzten Euskal Herriaren egituraketa instituzionalean, lurralde-artikulazioan eta autogobernuan.

1876ko abolizio hartatik mende bat geroago, 1976ko uztailaren 21ean, frankismoaren amaieraren testuinguruan eta trantsizio politikoaren atarian, Euskal Herriko hainbat udal ordezkari Bergaran bildu ziren. Alkateen Mugimendu hark Foruen abolizioaren mendeurrena baliatu zuen Euskal Herriaren nortasun nazionala, eskubide historikoak, udal tradizio demokratikoa eta autogobernurako nahia aldarrikatzeko.

1976ko adierazpen hartan jasotako espirituak gaurkotasun osoa du oraindik ere. Izan ere, udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun politiko eta instituzionala funtsezkoa izan da, eta gaur egun ere udal erakundeek herritarren borondate demokratikoaren adierazpide hurbilena izaten jarraitzen dute.

Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaizela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean beren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; ala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungi ezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez bait zegoen foraltasun zaharrean, eskubide historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.

Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta erabakiaren jabe behar dugula izan.

Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzukidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa, gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.

Erronka horiei guztiei ezin zaie behar bezala erantzun eskumen mugatuekin. Gaurko auziek gaurko tresnak eskatzen dituzte, eta Euskal Herriak autogobernu eta burujabetza handiagoa behar ditu bere etorkizuna bere herritarren borondate demokratikoaren arabera antolatzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11

Horregatik, oroimen historikoaren aitortzak gaur egungo autogobernuaren inguruko eztabaida politiko eta instituzionala elikatu behar du.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udalbatzak honako hau erabaki du:

ERABAKIAK

Lehena.

Basaburuko Udalak bat egiten du Alkateen Mugimenduaren 50. urteurrenaren eta Foruen abolizioaren 150. urteurrenaren oroitzapenarekin, eta bi efemeride horien garrantzi historiko, politiko eta instituzionala aitortzen du.

Bigarrena.

Udal honek aitortzen du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako euskal lurraldeen eskubide historikoen abolizioa Frantziako iraultzarekin gertatu zela 1789 eta 1790 artean; horrez gain, aitortzen du 1841ean Nafarroa Garaian, eta 1876an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezarritako foru-erregimenaren murrizketa eta abolizio prozesuek euskal lurraldeen jatorrizko eskubide historikoen eta burujabetza instituzionalaren galera ekarri zutela. Era berean, aldarrikatzen du eskubide horiek ez direla iraungi, ezta herri borondate demokratikoaren ordezkari gisa ere.

Hirugarrena.

Udal honek berresten du Euskal Herria Europako herri guztien artean berezko nortasuna eta nazio izaera duen herria dela, historia, gizarte eta kulturako ondare berezi baten gordailu; bi estatutan kokatuta eta gaur egun hiru eremu juridiko-politiko ezberdinetan antolatuta dauden zazpi lurraldeetan duela bere leku geografikoa eta euskal nazioa osatzen duten herritarrek dutela beren etorkizun politikoa modu libre eta demokratikoan erabakitze eskubidea.

Laugarrena.

Udal honek aldarrikatzen du beharrezkoa dela foru integrazioaren eta burujabetza osoaren bidean urrats berriak egitea, eta, horretarako, Euskal Herriko lurraldeen eskubide historikoak eta autogobernua eguneratzea, gaur egungo behar demokratiko, sozial eta instituzionaletara egokituz.

Bosgarrena.

Udal honek aitortzen du udalerriek Euskal Herriaren historian izan duten eginkizun erabakigarria, bereziki foru tradizioan, udal demokrazian eta herri ordezkartzan; eta konpromisoa hartzen du etorkizunean ere Euskal Herriaren eraikuntza demokratikoan, erakunde demokratikoen rola indartzeko eta hauen artean, bereziki, udal erakundeena.



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AA7Y 4YWX W2R2 L2Z3

2026-06-24ko akta - SEFYCU 378945

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

6tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

Seigarrena.

Udal honek bat egiten du 2026ko uztailaren 19an Bergaran antolatuko den ekitaldi politiko-instituzionalaren helburuekin, Alkateen Mugimendua gogoratzeko, 1976ko udal ordezkarien ekarpena aitortzeko eta Euskal Herriaren eskubide historikoen aldeko konpromisoa berritzeko.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai zerrendatik kanpo badago beste gai bat aztertzeko hirigintza batzordetik proposatutakoa. Bildutakoek gai zerrendan sartzea onartzen dute aho batez.

Arrarasko Lardi Etxea berritzeko proiektuaren aldaketa.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei eraikina erauspen egoeran zegoela eta sustatzaileak udalak eskatu bezala erorketa saihesteko neurriak hartzeko obrak biltzen dituen proiektua aurkeztu zuen.

Obra honen premia ikusita 6 hilabeteko epea eman zitzaien obra egiteko, epe hori iraungitua dago eta obrak bukatu gabe. Orain aurkezten dute proiektuaren aldaketa bat obra hasi zenean pareta bat erori zelako eta hortaz terraza laua egitea proposatzen dute. Udal araudira ez dela egokitzen proposamen hau adierazi zuen udal arkitektoak eta hortaz proiektuaren beste aldaketa bat aurkeztu beharko lukete, edo hasierako proiektura egokitu. Gainera proiektu aldaketa honek obra baimen berria izatea eskatuko luke, hortaz arkitektoaren proposamena zen batzarrean aurreko obra baimena iraungitzea.

Bildutakoek ez dute garbi ikusten obra iraungitzearen erabakia hartzea, nahiago dute obra berriro hasteko epea luzatzea, iraila arte beti ere udal arkitektoak eskatzen dizkien azalpenak eta aldaketak aurkezten direnean.

5. - Batzordeen informazioa.

Kultura eta Euskara Batzordeak. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Anari musikariaren kontzertua eskeiniko da uztailaren 18an Txokolatero atzekaldeko basoan.

Pertseiden inguruko tailerrak abuztuaren 5ean burutuko da Beramendin.

Ultzamako Ezpela euskara taldeak euskara teknikariaren bidez kontzejuetako pesteei begira gutun bat bidaltzea eskatzen dute udaletik, festen antolaketa, kartel eta bestetan euskara sustatzeko. Bildutakoek irakurtzen dute gutun proposamena eta erabaki dute udaletik ez bidaltzea, haiek bere kabuz egin nahi badute aukera emanaz. Basaburuko egunari balorazio ona eman dio batzordeak.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Ikasturte bukaeran eskola kontseiluko bilera egin zen, kontuak eta hurrengo urteko egutegia onartzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/09/11



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/09/11

Hurrengo ikasturtera begira Nafar Gobernuak antolatu nahi duen zerbitzuaren inguruan kexa jarri zen batzordetik eta erantzuna gaur bertan jaso da. Erantzunean adierazten dute eskolarekin harremana izan dutela zerbitzua antolatzerakoan eta esleitu zenean lehengoan ez zela inor aurkeztu prezioengatik. Aipatzen du Itsaso kendu dutela zerbitzutik baina jakin badaki Itsasora familia berri bat etorriko dela bizitzera eta bi haur dituztela eskolara etortzeko, familia hau jada eskolarekin jarri da harremanetan, eta honek arazo bat suposatuko du garraio zerbitzurik ez dutelako izanen.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

2025eko kontuan onartu ditu batzordeak. BTT bizikleta martxarako inskripzioen kudeaketagatik web orrian ordaindu beharrekoa 2026an kobratuko da, bai 2024koa bai 2025ekoa 9.000 euro inguru.

Enduro proba ez da aurtan burutuko.

BTT bizikleta martxarako 300 pertsonen izena eman zuten, aurkeztutako plazak bete ziren hortaz, horietatik 50 haur ziren.

6.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du informazioa.

UEMAko teknikariarekin bilera burutu du alkateak eta bertan erabaki dute udal buletineko azaleko iragarkia euskara hutsean izatea eta laburpen txiki bat bakarrik gaztelaniaz. Gainera ere gaztelaniaz jarri behar ez direnak ulertzen direlako, euskara hutsean jarriko dira.

Kontutan hartuko dira obrak egiterako orduan obren seinaleak euskaraz izan behar dutela.

BTT Basaburua Klub-arekin bilera egingo du UEMA-ko teknikariak udalak diru laguntzen duen egitasmotan euskara lehenetsia egoteko haien web orri, kartel eta besteetan.

Bukatzeko herrietan balorazio soziolinguistikoaren egitasmoa aurrera doa, UEMA arduratuko da horretaz.

Garraio Atalarekin bilera burutu zen, Larraun eta Imotzko udaleko alkateekin batea. Ultzamako udalak antolatu duen asteburuko jai bus zerbitzuarekin lotuko da Basaburua taxi zerbitzuarekin. Doneztebe, Elizondo eta Leitzako herriko pestetarako izango da zerbitzua. Beste herriren bat gehiago sartzen ahaleginduko dira, hots Irurtzun.

Kontzejuen bileran adostu zen desfibriladoreak jartzea, herri guztietan jarriko dira, kontzejuek ordainduko dute desfibriladorea eta udalak urteko mantenimendua.

2025ko udaleko kontuen aurkezpena burutu zen.

Adinduen eguneko egoitzaren antolaketan hasteko zuzendaria lanaldi erdiz kontratatu da.

7. Erregu-galderak

Ez dago.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 20:25 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

